



xa **sencillamente**
transformar la realidad

Zer da TTIP?

Pertsonak, herriak eta planeta kapitalaren aurretik

Zer da TTIP?

Merkataritza eta Inbertsinorako Ozeano Atlantikoz Bestaldeko Hitzarmena (TTIP ingelesezko akronimoaz ezagutzen da), gaur egun EEBBen eta BEaren artean herrialde bien arteko merkataritza eta inbertsinoa gehitzeko negoziatzen ari diran hitzarmena da. Honen bitartez, merkataritza askerako munduko ingururik handiena sortu gura da, 800 kontsumitzailegan eragina izango daualarik.

Zer dala-eta orain?

2013ko otsailean iragarri zan negoziazioei ekiten jakela, akordioa ahalik eta bizkorren lortzeko asmoagaz. Hona, prisent zergaitia: EEBBek eta BEak ahalmen ekonomikoa eta politikoa galtzen dihardue eta beste herrialde batzuek, batez be Txinak, hartzen dihardue euren postua ekonomia nagusi lez eta esprota-tzaile eta atzerriko inbertsino zuzenaren hornitzaile lez. TTIP hitzarmenaren bidez, beraz, interes geopolitikoak finkatu gura dira eta potentzia bien aginte eta nagusitasuna berreskuratu, hirugarren herrialde batzuei merkataritzan gerra deklaratzuz.

Zertan datza?

Funtsezko hiru osagaik eratuko dabe hitzarmena: a) merkaturako sarbidea, b) araudi-auziak eta muga-zerga bako hesiak eta c) arauak. BEaren eta EEBBen arteko muga-zergak dagoeneko oso bajuak diranez, hitzarmen-eredu barri hau sektore guztien liberalizazioan oinarritzen da eta legegintza-bateratzea lortzean, hau da, Atlantikoaren alde bietako legeak bateratzean, nazinoarteko korpora-

zinoentzako kostuak eta "beharrezkoak ez diran atzerapenak" murrizteko. Azken batean, merkataritza askea bultzatuko daben araudiak bateratzean datza, gizarte eskubideak murriztearen, kontsumoan segurtasunari uko egitearen edo ingurumenean eragitearen kontura bada be. **Kapitala, azken finean, lehenetsi egiten da, gizabanakoen, herrien eta planetaren ginetik.**


Negoziazioak isilpean, herri-tarrek jakin barik egiten ari dira, edukinaren inguruko kontu gehienak sekretuan dagozalarik, gizarte zibilaren partaide-tza barik, BEeko Gobernuai informazio asko emon barik eta erabagiteko ahalmenik ez dauan Europar Parlamentuaren aurrean.

Inbertsinoen babesaren gaia bereziki eztabaidatua da; honen bitartez, edozein enpresak salatu daike bape gardenak ez diran nazinoarteko auzitegien aurrean, euren irabaziak eragozten dituan edozein legeria (ingurumen, lan edo gizarte arlokoa). Gertatu izan da antzeko hitzarmenetan beste herrialde batzuetan, non Novartis edo Bayer lako multinazional

farmazeutikoek gobernuak auzitara eroan dabezan (India, Hegoafrika edo Brasil) HIESaren edo minbiziaren aurkako botika generikoak (merkeak eta edonork eskuratzeko modukoak) zabaltze-arren; eta gaur egun, Uruguai gertatzen da, hemen Philip Morris multinazionalak gobernu auzitara eroan daualako tabakismoaren prebentzinorako arauketa bultzatu daualako, eta aurrera egiten badau, Espainia eta beste herrialde batzuetara hedatzeko arriskua dagoalako. **Beraz, enpresa handien diru-irabaziak gizabanakoen osasunaren eta biziaren aurretik.**

TTIP NO

EL TRATADO DE LIBRE COMERCIO Y TRANSACCIONES EEUU-UNIÓN EUROPEA COLOCA A LAS CORPORACIONES POR ENCIMA DE GOBIERNOS, LEYES Y DERECHOS



PAREMOS ESA MÁQUINA ANTES DE QUE SEA TARDE

<http://noalttip.blogspot.com.es>

Laburbilduz: 10 datu kezkarri TTIParen aurrean

1. **Mehatxua demokraziarentzat.** Akordioa lortuko balitz, TTIP hitzarmenak ahalmena emongo leuskie enpresei euren etorkizuneko irabaziak kaltetuko leukiezan erabagiengaitik gobernuak auzitara eroateko, interes publikoan oinarritutako erabagi eta arautze demokratikoak ahulduz.
2. **Mehatxua zerbitzu publikoei.** TTIP hitzarmenak merkatu barriak sortuko ditu hezkuntza edo osasuna lako zerbitzu publikoetan, liberalizazio eta privatizazio handiagoa ekarriz. Indarrean sartzen bada, oso gatxa izango da gainera zerbitzu honeek –eta ura edo energia lako guztiontzako zerbi-tzuak- kontrol publikora edota arrazionalizazio-estrategiara itzultzea.
3. **Mehatxua elikadura-segurtasunerako.** Elikadura-segurtasunari buruzko arautzearen bateratzearen bidez, BEeko segurtasun-mailak murriztu egingo dira EEBBetako mailakaz parekatu arte. Horren eraginez, esate baterako, BEak genetikoki aldatutako organismoen, pestiziden eta hormonen bidez tratatutako haragiaren merkataritza eta kontsumoari ezartzen deusazan murrizketak kendu egingo dira.
4. **Mehatxua ingurumenarentzat.** Ingurumen-arautzearen bateratzearen bitartez, BEeko mailak murriztu egingo dira EEBBetako mailakaz parekatu arte. Ondorioz, EEBBetan, Erresuma Batuetan eta Europako beste herrialde batzuetan izan dan *fracking* dalakoaren booma gertatuko da. (*Fracking* edo hausqueta hidraulikoa lurpetik gasa eta petrolioa ateratea ahalbideratzeko edo gehitzeko teknika da eta eragin gogor eta arriskutsuak ditu ingurumenerako eta osasunerako).
5. **Mehatxua klimarentzat.** Inbertitzaileek pribilegio eta eskubideei esker, TTIP hitzarmenak erregai fosilaren erauzketa mugatzeko politika barriak ezartzen dabezan gobernuak auzitara eroateko ahalmena emongo deutse enpresei.
6. **Mehatxua laneko eskubideentzat.** Laneko eskubideak EEBBetako mailetara murriztu daitezke eta negozioak jatorrizko kokalekutik EEBBetara edo Europako herrialdeetara lekualdatu ahal izango dira, lan eta gizarte baldintza eskasagoakaz.
7. **Mehatxua pribatutasun pertsonalarentzat.** Filtratutako agirien arabera, TTIP hitzarmena ACTA (Anti-Counterfeiting Trade Agreement edo Merkataritza-akordioa faltsutzearen aurka) dalako elementu batzuk barriro sartzeko erabili daiteke dalako ACTA hori Europar Parlamentuak herritarren protesta ugarien ostean baztertu egin ebalarik. Honek zera ekarri daike: internet hornitzaileek euren bezeroak zelatatzea.
8. **Mehatxua finantza-kontrolerako.** TTIP hitzarmena 2008tik aurrera, beste finantza-krak bat saihesten aldera, sartu izan diran finantza-arautze barri asko ezabatzeko ezarri da.
9. **Negoiazinoak sekretuan.** Negoiazinoetan, multinazionalen lobbiek zeresan eta egiteko nabarmena daben bitartean, herritarrak kanpoan geratu dira. Negoiztzaile guztiek konfidentzialtasun-akordioa sinatu behar dabe. Ezin da akordioaren idazkia eskuratu, beraz, ezagutzen diran datuak filtratutako agirietatik datoz.
10. **Egitasmo arriskutsua gainerako herrialdeentzat.** TTIP onartzen bada, gainerako herrialdeek, merkatua galtzerik gura ez badabe, presino itzela izango dabe TTIParen mailak ezartzeko.

Estekak gehiago jakiteko:

- TTIPari buruzko informazioa, agiriak, ekin-tzak eta mobilizazioak:
 - <http://noalttip.blogspot.com.es>
 - <https://ttipsecret.wordpress.com>
 - www.ttipez.eus
- [Zer da TTIP eta bere eragina](#) (bideoa).
- Kristinau ikuspuntutik, [TTIPari buruzko orrialde dibulgatzailea](#), CONFEREko Zuzentasun eta Alkartasunerako Batzordearena



Proposamena...

Sinatu eta TTIParen aurkako Europar Herritarren Ekimenerako kanpaina zabaldu (2015eko urrira arte). Orain arte, europar herritarren **2.150.000 sinadura** batu dira. Sinatu esteka honetan: <https://stop-ttip.org/es/firma>